

6 mantangorri



LIBURUAK

Izenburuak: ‘Heriovilleko sekretua’, ‘Zonbi Parkean harrapatuta’ eta ‘Zonbi mutanteen gaua’.

Egilea: Peter Walker. **Marrazkiak:** Bie.

Bilduma: Zonbi Gunea. **Argitaletxea:** Ibaizabal.



Eukene Herrera

IBAIZBAL ARGITALETXEKO LITERATURA SAILEKO ARDURADUNA

«Istorio arinak, biziak eta entretenigarriak dira»

Aita estresatua bizi dela-eta, Rigau familia bake eta lasaitasun bila joan da Herioville herrixkara. Bainan benetan herri baketsua eta lasaia ote da Herioville hori? Nola pentsatuko zuten, bada, zonbiz beterik egongo zirela hango kaleak? Lasaituko ote da familia? Edo, estresak jota, lehen-го herrira joan beharko dute berriro? Zonbi Gunea bildumako lehen hiru liburuak kalean dira jada, euskaraz.

Nortzuk osatzen dute ZA kuadrilla?

Zonbien aurkako kuadrilla da ZA kuadrilla, eta zonbiak harrapatzea da haien ardura nagusia. Lau kide osatzen dute: Charles, Thais, Paula eta Biel.

Charles da kuadrillako burua. Ez du nahi Max kuadrillako kide iza-tea, ez baitio inolako gaitasunik ikusten. Thais Charlesen lehengusina da. Eta horri bai, izugarri gustatuko litzaiok Max ZA kuadrillako kide izatea. Thaisen lagun mina da Paula; oso neska trebea eta indartsua da. Kuadrillako laugarren laguna Biel da, nagia eta patxadazalea. Botere bereziak ditu: etorkizuna ikus dezake. Bainan iragartzen dueñaren guztiz kontrako gertatzen da beti.

Ez dira bilduma honetako protagonista bakarrak.

ZA kuadrillaz gain, Rigau familiako

kideak ere pertsonaia ga-rantzitsuak dira bilduma horretan.

Beste lau kidek osatzen dute Rigau familia: aita, Joan, estresak jota dago; ama, Cinta, oso zoriontsua zen hirian; Max, 8 urteko mutiko ausarta da, eta Hercules, etxeko txakurra.


Munstroak, zonbiak eta beste ere agertzen dira.

Bai, hala da. Max Rigau zoriontsu bizi zen hirian, txakurrarekin, gurasoekin, la-gunekin. Halako batean, baina, Heriovillera joan behar izan zuten. Aita estresatuta zegoen, eta leku baketsu bat behar zuen lasitzeko. Heriovillek, ordea, sekretu handi bat du: zonbien lurrealdea da.

Lehen hiru liburu hauetan zer kontatzen da?

Heriovilleko sekretua da bildumako lehen liburua. Rigau familiak herria utzi eta Heriovillera joan dela bizitzena kontatzen da lehenengo liburuan. Esan bezala, herri berezia da Herioville, sekretu handi bat gordetzen baitu: zonbiak bizi dira han. Eta, zonbiei aurre egiteko, kuadrilla berezi bat dago: ZA kuadrilla. Zonbiak harrapatzea da haien ardura.

Zonbi parkean harrapatuta libu-



ruan, Maxek ZA kuadrillako kide izan nahi duela kontatzen da. Maxen nahia hori bada ere, Charlesek ezezko biribila eman zion. Soilik Thaisek eta Bielek dute konfiantza Maxengan. Jinkana bat prestatzen diote ezkutuko trebetasunak baliosteko, baina ez du gaintitzen proba bakar bat ere. Max trakets hutsa da, baina baita burugogorra ere. Egoskorkeria hori ikusita, Charlesek proba bat prestatzen dio, oso proba arriskutsua. Eta Zonbi mutanteen gaua da bildumako azken liburua, oraingoz. Ma-

xek kuadrillan sartzeagatik edozer egiteko prest dagoela erakutsiko du. Hala, gau beltza eta berezia izango du zonbi mutanteen artean. Bertute berezi bat duela jakin-go du.

Oro har, nolako istorioak dira bildumakoak?

Intrigaz eta misterioz be-teriko liburuak dira. Bainan badute beste osagai interesarri bat: umorea.

Istorio arinak, biziak, entretenigarriak dira. Pertsonaia dibertigarriak dira, eta egoera bereziak sortzen dira. Azken batean, ustekabez betetako istorioak dira; sorpresa eta ekintza ugari agertzen da libruotan. Beste mundu bat erakusten diguten istorioak dira, gainera: zonbien mundua.

Testuak modu berezian idatzia daude: hainbat hitz letra mota ezberdinez nabarmentzen dira...

Bai, estetikoki liburu bereziak dira; itxura alaia eta bizia dute. Hainbat letra motarekin jokatu da, esaterako, irakurlearentzat liburua erakargarriago izan dadin. Letra motaren erabilera hitzaren bera-en esanahiarekin lotuta dago. Adibide bat aipatzearren: beldurra adierazten duten hitzetarako, letra mota bat aukeratu da; beraz, beldurra adierazten duen hitz bat agertzen den

bakoitzean, aukeratutako letra mota hori erabiliko da.

Estetikoki, badute gaztetxoek eskertzen duten beste osagarri bat ere: marrazkiak.

Orain artean, zer-nolako harrera izan dute? Jarraipenik izango du?

Udazkenean hasi genuen bilduma, eta hiru liburu kaleratu genituen. Harrera ona izan du, eta, hori dela eta, laugarren titulua prestatzen ari gara udaberri honetarako; ziur ez dela azkena izango.